

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2015-2019 PLAN ESTRATEGIKOA



Facultad de Psicología

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Psikologia Fakultatearen misioa	4
3. AMIA analisia.....	4
4. 2019 ikuspegia	8
5. Estrategia.....	9
6. AMIA analisia prozesu ekintzekin gurutzatzea.....	23
7. Hausnarketa estrategikorako taldea.....	27

1. Sarrera

Hemen aurkezten den Plan Estrategikoa Psikologia Fakultatean eginiko gogoetaren emaitza da, eta helburutzat du zehaztasuna eta eraginkortasuna ezaugarri gisa izango dituen kudeaketa tresna izatea.

Europako Unibertsitate Eremura egokitutako Ikasketa Planak ezarri, eta Graduaren lehen akreditazioa gainditu ondoren, baita Osasun Psikologia Orokorraren lanbide arautura sarbidea ematen duen Osasun Psikologia Orokorraren Masterraren diseinua eta ezarpena ere, Psikologia Fakultateak gogoeta prozesu bati ekin dio datozen urteetan lortu beharreko erronka berriak ezartzeko.

Gogoeta prozesu horrek helburutzat izan du une oro UPV/EHUren Plan Estrategikoarekin lerrokatzea, kontuan izanik, betiere, hartan planteatzen diren ardatz estrategikoak: Prestakuntza, Ikerketa, Nazioartekotzea, Kudeaketa eta Gizarte Konpromisoa. Horretarako, aldi honetan, funtsezkoa iruditzen zaigu Psikologia Fakultateko estrategiak behar berrietara egokitzeko ahalmena izatea; horri begira, I+G+B eta ikasleen eta profesionalen nazioartekotzea bultzatuko du, gure balioak eta gizarte konpromisoa ahaztu gabe.

Hemen aurkezten den Plan Estrategikoak strategiari buruzko atal bat barne hartzen du, prozesu ekintza multzo bat, hain zuzen, 2015-2016 Kudeaketa Plana eratzen dutenak. Prozesuen analisi, berrikuspen eta hobekuntzatik sortutako urteko ondoz ondoko gogoeten emaitzaren ondorioz, Kudeaketa Planak eratuko dituzten prozesu ekintza berriak diseinatuko dira. Era berean, prozesu ekintza horiek guztiak gure Ikastegiaren KBBSa eratzen duten prozesu eta azpiprozesuei lotuta daude; arduradunak identifikatu dira, adierazleak ezarri dira, baita gure ustez lortutako emaitzak egoki gisa ebaluatu daitezkeen balio multzoa ere.

Hori guztia Psikologia Fakultateko kide guztiek kontsulta dezakete UNIKUDE plataforman.

2. Psikologia Fakultateren misioa

Hausnarketa estrategikoaren lehenbiziko pausoa 2011-2015eko Plan Estrategikoan indarrean dagoen misioa berrikustea eta eguneratzea izan zen. Horren emaitza da Psikologia Fakultateak duen misioa:

Misioa

Donostiako Psikologia Fakultatea UPV/EHUko ikastegietako bat da, eta honako helburu nagusi hauek ditu: ikasleei irakaskuntza egokia ematea ondo prestatutako profesionalak izan daitezten eta psikologiaren arloko ezagutza sortu eta hedatzea; guztia, banakakoen eta gizarte osoaren osasuna eta ongizatea hobetze aldera.

Helburuak horiek izanik, fakultateak graduoko eta graduondoko prestakuntza programa ematen du, elebiduna, gizartearen premiak asetzen dituen eta gaitasunak eskuratzeko bide irakaskuntza-ikaskuntza prozesu koordinatua duena. Horren bidez, psikologiaren arloko prestakuntza teoriko eta praktikoa sendoa eskuratzen du ikasleak, bai eta espezializazio aurreko prestakuntza ere arlo klinikoan eta psikosozialean eta hezkuntzaren, giza baliabideen, erakunde antolakuntzaren eta ikerketaren arloan.

Hori guztia, kalitatezko produkzio zientifikoa duten ikertalde finkatueta eta kanpoko praktika espezializatuak egiteko aukera bermatzen duen erakunde sare batean oinarrituta; eta ondo prestatutako giza talde konprometituak bultzatuta, abiapuntu hartuta berrikuntza, pentsamendu askatasuna eta espiritu kritikoa.

3. AMIA analisia

2015. urtean zehar eta, honako honetan aurkezten den 2015-2019 plan estrategiko berria osatze aldera, dekanotza taldeak talde fokalak lideratu ditu irakasle-ikertzaileekin, AZPkoekin eta ikasleekin, fakultatearen AMIA analisi bat egiteko asmoz.

Halaber, AMIA galdetegi bat online bidali zitzaien fakultatearekin gradu eta graduondoko kanpoko praktika nahitaezkoetan lankide diharduten zentroei.

Bere aldetik, gehitu egingo dira irakasle-ikertzaileen, AZPkoen, ikasleen eta praktika begiraleen gogobetetze inkestetan, ikasleen irakasle-ikertzaileen irakaskuntza balioesteko egindako inkestetako emaitzetan, ikastegiko Barne kalitatea bermatzeko sistemaren adierazleen emaitzetan eta, 2015eko ekainean psikologiako gradua akreditatzeko burutu den prozesuan lortu diren emaitzetan antzemandako ahultasun eta indarguneak.

Emaitza hauek guztiak aztertzearen ondorioz, dekanotza taldeak eta fakultateko kalitate batzordeak honako AMIA analisi hau adostu zuten.

AHULEZIAK

Irakaskuntza

1. Ikasketa planaren antolaketa: lauhilekoen arteko desorekak daude, gaitegiak luzeegiak dira, lan zama handiegia.
2. Ikasle gehiegi dago talde bakoitzean.
3. Metodologia aktiboak gutxi erabiltzen dira.
4. Koordinazioa, orokorrean.
5. Ikasketa planaren konplexutasuna, eta horren eragina ordutegien plangintzan.
6. Ebaluazio sistemak hobetu daitezke.
7. Irakasgai gutxi eskaintzen dira ingelesez.

Ikerketa

1. Fakultateko ikertaldeek ikusgarritasun gutxi daukate nazioartean.
2. Ez ikasleek, ez IIPek, ez AZPkoek ez dakite zer ikertzen den fakultatean.

Antolaketa

1. Ikasketa planari, jarduera akademikoari, irteera profesionalei buruzko informazioa.
2. Zaila da web orria eguneratuta izatea.
3. Aukera gutxi daude langileen arteko interakziorako.

Zerbitzuak eta instalazioak

1. Ikasgelategian klasea ematea.
2. Udan bero handiegia dago eraikinean.
3. Bulegoen ezaugarriek lipoatrofia sortzea ekar dezakete.
4. Toki gutxiegi dago fakultatean.

Irudia eta kanpoko harremanak

1. Kanpoko komunikaziorako mekanismoak ez dira eraginkorrak.
2. Harreman gutxi dago bigarren hezkuntzako arduradunekin.
3. Praktika zentroen presentzia handitu behar da unibertsitatean.
4. Praktika zentroekiko eta oro har lanbidearekiko harremanak hobetu behar dira.
5. Fakultatearen lanak zabalkunde gutxi dauka gizartean.

Integrazioa

1. Ikasleek motibazio eta interes gutxi daukate ikasteko.
2. Irakasleek motibazio gutxi daukate irakasteko, ikerketari ematen diote lehentasuna.
3. AZPkoek motibazio gutxi daukate erronka berriak beren gain hartzeko.
4. Ikasleek, IIPek eta AZPkoek motibazio gutxi daukate fakultatearen kudeaketan parte hartzeko.
5. Ikasleen Kontseiluak jardun gutxi dauka fakultatean.
6. Fakultatearen, titulatuaren eta erretiratutako langileen arteko harreman gutxi dago.

INDARRAK

Irakaskuntza

1. Ikaslearen gidak.
2. Hautazko irakasgai asko daude.
3. Errendimendu, arrakasta eta ebaluazio tasak.
4. Titulazio guztiak elebidunak dira fakultatean.
5. Ikasle berriak hobeto prestatuta datoz hizkuntza ez-ofizialetan, eta badaude haietan irakasteko akreditatuta dauden irakasleak.
6. Docentiaz programan parte hartu dutenen portzentaia.
7. Psikologiako Gradua akreditatuta dago.
8. Nahitaezko kanpoko praktiketako zentroek oso ondo baloratzen dituzte prestakuntza teorikoa eta gaitasun orokorrak.
9. Ikasleek oso balorazio ona egiten dute IIPen irakaslanaz.

Ikerketa

1. Fakultatean ikertalde sendo eta itzal handikoak daude.
2. IIPen seiurtekoen kopurua.
3. Psikologiako ekoizpen zientifikoa handitu da Euskadin, eta arlo honetako munduko ekoizpenaren batez bestekoaren gainetik dago. Ikerbasqueren 2015eko txostena.

Antolaketa

1. Psikoplan.
2. Web orria.
3. IKE zerbitzua.
4. Ikasleen mugikortasuna.
5. Garapenerako lankidetzan egiten diren praktikak.
6. Kanpoko praktikak.
7. Prozesuen araberako kudeaketa.
8. KBBSren akreditazioa. AUDIT.

Zerbitzuak eta instalazioak

1. Ikasgelak eta, oro har, instalazioak, ondo ekipatuta daude.
2. Fakultatea ondo hornituta dago baliabide informatikoez.

Kanpoko irudia

1. Fakultateak irudi ona dauka (praktiketako begiraleek betetako AMIA inkesta).

MEHATXUAK

Lehia

1. Beste fakultate eta titulazio batzuekin lehiatu beharra (ingurune hurbilean itzal handiko goi mailako beste ikastegi batzuk daude).

Balizko ikasleak

1. Ikasleek aukeratu ohi dituzte irteera profesional hobe ikusten dieten ikasketak.

Lan ingurunea

1. Ziurgabetasuna dago, arautegien etengabeko aldaketek graduan eta graduondokoa izan ditzaketen eraginak direla eta.
2. Fakultatearen ohiko finantzazioa gutxitu egin da, krisia dela eta.
3. Zaila da profil profesionalak gizartearen premia berrietara egokitzea.
4. Psikologoaren lana ez dago araututa eta intrusismo laborala dago.

Irakaskuntza eta ikerketa ingurunea

1. Irakasleentzat zaila da ezarritako aldaketetara egokitzea (IKTak, aldaketak legerian eta irakaskuntzaren koordinazioan, plataforma digital berriak eta kudeaketa plataforma berriak).
2. Ikerketaren arloan, zaila da enpresen, erakundeen eta elkarte profesionalen premietara egokitzea.
3. Ikerketa erakunde gehiago daude.
4. Jakintza arloen arteko desorekak daude diruaren banaketan.
5. Krisi ekonomikoa.

Gizarte ingurunea

1. Fakultatearen jarduerak oihartzun txikia dute gizartean (fakultatearen ikusgarritasuna txikia da enpresa eta gizarte bilbean, informazio gutxi dagoelako haren jardunaz).

AUKERAK

Balizko ikasleak

1. Gero eta balizko ikasle gehiagok eskatzen dute informazioa (izena emateko eskarien kopurua hazi egin da, bai lehen aukera gisa eta bai bestelako aukera gisa).

Lan ingurunea

1. Psikologo forentsearen lanbidearen aitorpena eremu judizialean.
2. Etengabeko prestakuntzaren eta espezializazioaren beharra.
3. Enpresa sortzaile gazteentzako laguntza instituzionalak daude.

Irakaskuntza eta ikerketa ingurunea

1. Gizartean oihartzuna izan dezaketen goi mailako ikertaldeak daude.
2. Diziplina arteko jakintza sortzeko ahalmenik badago.
3. Ikerketak komunitate zientifikoan daukan inpaktua neurtzeko tresnak.
4. Badirudi psikologo forentsearen lanbidea arautu litekeela unibertsitate master baten bidez.

Gizarte ingurunea

1. Beren ikasketen arloan lan egiten duten titulatu kolektibo bat dago.
2. Jardun zientifikoaren zabalkundea egiteko ahalmenik badago.
3. Sare sozialen inpaktua.

4. 2019 Ikuspegia

Ikuspegiak barne hartzen ditu plan honen iraupen aldian fakultateak lortu nahi dituen emaitzak eta fakultateak izan nahi duen irudia ikasleen, komunitate zientifikoaren, fakultatearen gizarte sarearen (Psikologia Fakultatean lan egiten duten edo lan egin duten pertsonen), enplegu emaileen, UPV/EHUko gainerako ikastegien, beste unibertsitate batzuen eta gizartearen aurrean.

Berrikusi den ikastegiko misioa eta egin den AMIA analisisa abiapuntutzat hartuta, hausnarketa taldeak fakultatearen ikuspegiari dagokion helburu nagusia zehaztu du: gure tituludunen ehuneko handi bat psikologiaren arloan lanean aritzea. Helburu hori lortzeko, honako ikuspegi lerroak zehaztu ditu:

1. Psikologia Fakultatearen asmoa da bere ikasleek ikastegia bikaintasun zentrotzat har dezatela bertan ematen den prestakuntza akademikoaren kalitateagatik eta ikastegiak ikasleengan etengabeko prestakuntza, arazoak konpontzeko gaitasuna eta ekimena sustatzeko egiten duen lanagatik.
2. Psikologia Fakultatearen asmoa da erreferente zientifiko, akademiko eta soziala eta lan arloko erreferentea izatea bere gizarte sarearen zati batentzat, enplegu emaileentzat eta gizartearentzat.
3. Psikologia Fakultatearen asmoa da fakultate ezaguna izatea ikastegiak daukan gizarte erantzukizunagatik.
4. Psikologia Fakultatearen asmoa da UPV/EHU eta beste unibertsitate batzuetan erreferente izatea ikastegiaren kudeaketaren bikaintasunagatik, berrikuntzagatik eta etengabeko hobekuntzarako espirituagatik.

5. Estrategia

Ikuspegiarekin lotutako helburuak gauzatzeko, hausnarketa taldeak lau ildo estrategiko definitu ditu, hainbat helburu eta ekintza estrategikotan banatuta daudenak. Horrez gain, 2019rako ikuspegiari dagozkion helburuak lortzeko gauzatuko diren prozesu eta azpiprozesuekin lotutako ekintzak zehaztu dira.

ESTRATEGIAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZA ESTRATEGIKOAK	PROZESU EKINTZAK URTEKO KUDEAKETA PLANAK	EGITEKO DATA
Fakultatea erreferentzia izatea akademia, gizarte eta lan arlorako, bere balio proposamena etengabe berrituz	Fakultatearen hezkuntza eskaintza egokitu, gizarte premia aldarretara eta lege berrietara	Inguruneko eskaintzari, gradu eta graduondoko formakuntzarekin erlazionatutako gizarte eskariei eta garapen teknologikoari erantzuna emango dien lehiaketa-zaintza prozedura bat implementatu	1. Gradu eta graduondoko formakuntzarekin erlazionatutako gizarte eskariak eta lehiakide posibleak aztertzea helburu izango duen prozedura bat implementatu	15-16 IKASTURTEA
			2. Egoki iritziz gero, titulazio berriak proposatu	17-18 IKASTURTEA
		Erantzuna eman ministerioaren aldaketa eta arau	3. Erantzuna eman ministerioaren aldaketa eta arau	URTERO

		berriei	berriei	
	Nazio eta nazioarteko ikasle onenak erakarri	Ikasten hasteko eskariak gehitzeko asmoz egindako ekintzak, ikasleak hartzeko ekitaldietan parte aktiboa hartuz eta informazio erakargarria zabalduz	4. Unibertsitate orientaziorako jardunaldietan, masterren astean eta ateak zabaltzeko egunetan parte hartu. 5. Ateak zabaltzeko egunak familientzat programatu	URTERO
	Gure titulatuena lan txertatzea erraztu	Kontratatzaile potentzialak aztertzeko prozesuari ekin, segmentu kontratatzaile bakoitzari egokien zaizkion kanalak eta adierazgarrien zaion informazioa aukeratzeko	6. Kontratatzaile potentzialen soslaiak identifikatu eta aztertu	15-16 IKASTURTEA
		Fakultateko ikerkuntza jarduna gerturatu ikastegiaren gizarte sarera, kontratatzaile potentzial ezberdinei eta gizarte inguruari	7. Ikerkuntza jarduerak fakultatearen memorian sartu 8. Zientziaren astean eta era honetako jardunaldietan parte	15-16 IKASTURTEA URTERO

			hartu	
		Sare sozialak erabili, laneratzea erraztu eta fakultatearen jarduera adierazgarrienak zabaltzeko	9. Sare sozialei buruzko prestakuntza jaso (Linkedin eta ehualumni)	15-16 IKASTURTEA
			10. Sareak erabili (Linkedin eta ehualumni) informazioa zabaltzeko	16-17 IKASTURTEA
		Ikasleei curriculumaz kanpoko prestakuntza eman	11. Psikologiaren irteera profesionalen inguruko jardunaldiak burutu	15-16 IKASTURTEA
			12. Enplegua bilatzeko baliabideei buruzko hitzaldiak	15-16 IKASTURTEA
	Fakultatearekiko atxikimendua sustatu bertako gizarte sarearen bidez (Psikologia fakultateko langile edo ikasle izan edo diren pertsonen artean)	Fakultatearekiko atxikimendua areagotzeko ekintzak diseinatu eta osatu	13. Pertsonalaren gizarte elkarrekintza erraztuko duten eremuak sortu	15-16 IKASTURTEA
			14. IIP, AZP eta ikertzaile kontratatu berriei edo prestakuntzan ari direnei harrera egiteko gidaliburuak egin	16-17 IKASTURTEA

			15. Gogoeta egiteko talde bat osatu, fakultatearekiko atxikimendua areagotzeko ekintzak hausnartzeko	16-17 IKASTURTEA
	Erreferentzia izan, UPV/EHU eta beste unibertsitate nazional eta nazioartekoetan, kudeaketan dugun bikaintasun, berrikuntza eta etengabeko hobekuntzarako senarengatik	Fakultateak UPV/EHUren erabakitze organoetan, dekanoen konferentzian eta I+G+Brako gobernu zein gizarte foroetan duen presentzia mantendu eta gehitu	16. Fakultateak UPV/EHUren erabakitze organoetan, dekanoen konferentzian eta I+G+Brako gobernu zein gizarte foroetan duen presentzia mantendu eta gehitu	URTERO
	Fakultatearen indaguneak barne zein kanporantz proiektatu eta ikusarazi, ikerkuntza, formakuntza eta bere ikaslearen gaitasun profesionalaren	Dibulgazio materialak sortu, interes talde ezberdinen artean zabaltzeko	17. Liburuxka ezberdinak egin, orientatzaileen artean, nazioarteko azoketan eta besteetan banatzeko	16-17 IKASTURTEA
			18. Fakultatearen indarguneei buruzko bideo bat egin, azoketan,	16-17 IKASTURTEA

	inguruan		orientatzaileei, web bidez (youtube...) zabaltzeko	
			19. Urteko memoriarako formatu berri bat diseinatu	17-18 IKASTURTEA
			20. Kanpoko praktiken inguruko txosten labur bat egin urtero, interes talde ezberdinen artean banatzeko: Ikasle, praktika zentro, IIPen artean	15-16 IKASTURTEA
		Web gunean eta sare sozialetan informazioa jarri fakultatearen eta bere pertsonalaren jardueri buruz	21. Web gunea berrikusi eta eguneratu	URTERO
		Fakultateak zientzi dibulgaziorako jardueretan duen parte hartzea sustatu	22. Jakintza arlo ezberdinek zientziaren asteen parte har dezaten sustatu	URTERO
			23. Nork bere jardun zientifikoa dibulгатzeko baliatu	16-17 IKASTURTEA

			ahal diren hedabideen zerrenda egin eta irakasleei banatu	
			24. Erraztasunak jarri irakasleak hedabideetan ager daitezen	URTERO
		Ikertaldeak eta ekoizpen zientifikoa ikusarazi	25. Ikerkuntzari buruzko informazioa ingelesez eskaini	16-17 IKASTURTEA
Prestakuntza akademiko sendoa izateagatik, etengabeko prestakuntzarako eta arazoak konpontzeko gaitasunagatik eta ekimendunak izateagatik ezagunak diren psikologiako graduatuak eta osasun psikologo orokorrak prestatzea.	Ikasleak ekimenerako prestatu eta gaitu	Sustatu ekimenerako praktikak eta GRALak eta MALak	26. Enpresen ekimenari loturiko GRALak eta MALak eta praktikak egiteko izan dezaketen interesa aztertu	16-17 IKASTURTEA
		Ekimenerako prestakuntza eskaini	27. Ekimenerako prestakuntza osagarria programatu	URTERO
	IIPen plantilla goi kualifikatua lortu, ikasleen kopuruari egokitua eta gai dena teknologia berrietan etengabe	Sailekin batera, kontrataziorako beharrak elkarrekin aztertu	28. Sailekin batera, kontrataziorako beharrak elkarrekin aztertu	URTERO
		Irakasleen ikerkuntza jarduna sustatu, unibertsitatearen	29. Irakasle berriei harrera egiteko gidaliburuan ikerkuntzari buruzko	16-17 IKASTURTEA

	berritzeko	esku dagoen informazioa eskainita	informazioren inguruko atala gehitu	
			30. Fakultatearen web gunean erraztu, unibertsitatearen ikerkuntzari buruzko informazioa eskuratzea	15-16 IKASTURTEA
		IIPen prestakuntza iraunkorra sustatu, informazioa eskainiz eta ikastaro, mintegi, kongresu eta besteetara joateko bide emanaz	31. IIPk DOCENTIAZ programan eta UIPP, HBP, ERAGIN eta abarretan duen parte hartzea sustatu	URTERO
	Irakaskuntzarako instalazio eta ekipamendua izan, ikasleen kopurura eta agertzen ari diren irakaskuntza metodologia berrietara egokituta	Urtero aztertu instalazio eta ekipamenduaren inguruko beharrak	32. Prestakuntza atzemandako beharren arabera programatu	BI URTERO
			33. Urtero aztertu instalazio eta ekipamenduaren arloko beharrak eta parte hartu errektoreordetzaren deialdietan	URTERO
		Ordutegi eta ikasgelak kudeatzeko	34. Ezarri GpUntis eta WebUntis programak	15-16 IKASTURTEA

		programak ezarri eta hobetu	35. Irakasgaien arteko gainjartze eta bateraezintasunak murriztu eta ezabatu	URTERO
			36. Aretoen kudeaketa optimizatu	URTERO
	Prestakuntza akademiko sendoa duen ikasleak lortu, etengabeko ikaskuntzarako gai	Hobekuntzarako ekintza egin, ikasketa plan, irakaskuntza plangintza, koordinazio, irakaskuntza gidaliburu, mugikortasun, kanpoko praktika, GRAL eta MALetarako prozeduretan	37. Eskola uztearen tasak sarbidearen arabera aztertu, bereziki LHtik etorritakoa, eta hartu beharreko neurriak hartu	URTERO
			38. Aztertu zergatik den baxuagoa 2. kurtsoko errendimendu tasa gainerako kurtsoetan baino	15-16 IKASTURTEA
			39. Euskarazko ikastalde teorikoen egitura aztertu, sailen irakaskuntza ahalmenera eta euskarazko ikasleen unean uneko kurtsoko matrikulara egokitzeko	URTERO

			40. Ikasleek, barneko tutoreek eta praktika begireleek kanpoko praktikak ebaluatzeko galdetegiak bete ditzatela sustatu	URTERO
			41. Gradu eta masterretako praktiken barne tutoreen arteko koordinazioa sendotu	15-16 IKASTURTEA
			42. Ikasleek beren itxaropenen arabera aukera zezatela uzten duten praktika zentroei buruzko informazio fitxa zabaldu	15-16 IKASTURTEA
			43. Irakasgai eta jardueren koordinazio horizontal eta bertikala mantendu, edukien gainjartzei arreta berezia eskainita	URTERO
			44. Irakaskuntza gidaliburuetakoa informazioa hobetzea	URTERO

			sustatu	
			45. Web gunean GRALari buruz dagoen informazioa berregituratu, kolektiboen arabera ordenatuta	15-16 IKASTURTEA
			46. Irakaskuntza taldeen koordinazioa, irakasgaien edukietan gainjartzeak ekiditeko	URTERO
			47. Masterretako praktiken zentroen kopurua gehitu	16-17 IKASTURTEA
			48. MALa ebaluatzeko irizpideak aztertu eta, hala behar bada, aldatu	15-16 IKASTURTEA
			49. Titulatuen jarraipena, izandako lan txertaketa aztertzeke	15-16 IKASTURTEA
			50. Ingelesezko irakasgaien eskaintza sustatu	URTERO

			51. Twittera GRALari buruzko komunikazioan erabiltzearen eraginkortasuna aztertu, ikasleentzako bestelako gai interesgarrietara hedatzeko: kanpoko praktikak eta mugikortasun programak	16-17 IKASTURTEA
			52. Mugikortasunerako beharrekia izango den hizkuntz-akreditazioa lehenengo kurtsoetatik informatu	15-16 IKASTURTEA
Fakultatearen kalitatea bermatzeko barne sistema mantendu eta hobetu, AUDIT irizpideei jarraiturik	Ikastegia bikaintasun eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik kudeatu	Kolektibo guztiek ikastegiaren kudeaketan eta fakultatearen proiektuetan duten parte hartzea sustatu eta inplikazio maila areagotu	53. Administrazioaren kudeaketa hobetzeko protokoloak osatu	16-17 IKASTURTEA
			54. Hobekuntza talde bat osatu, kolektiboak fakultatearen kudeaketan eta proiektuetan inplikatze moduan aztertzeko	URTERO

		Kudeaketaren autoebaluazioa egin	55. Kudeaketaren autoebaluazioa egin	URTERO
		Interes taldeekiko aitortza	56. Aitortza pertsonalari	16-17 IKASTURTEA
			57. Praktika begiraleen lana aitortzeko jarduerak sustatu	15-16 IKASTURTEA
		Barne eta kanpo komunikazioa hobetu	58. IIPen CVri buruzko informazioa web gunean jartzea sustatu	16-17 IKASTURTEA
			59. Informazioa bidaltzerakoan bikoizketak ekiditeko estrategiak gauzatu	15-16 IKASTURTEA
			60. Titulazioaren jarraipenerako adierazleei buruzko informazioa web gunean jarri	15-16 IKASTURTEA
			61. Masterreko web gunean jasotako informazioaren kantitatea eta	URTERO

			antolaketa hobetu	
	Tituluen akreditazioa lortu	Ebaluazio agentzien gomendioak aztertu eta gehitu	62. Ebaluazio agentzien gomendioak aztertu eta gehitu	URTERO
Fakultatea ezaguna izan ikastegiak daukan gizarte erantzukizunagatik.	Fakultateak euskararekin duen konpromisoa sendotu eta hobetu	Ikastaldeek egitura euskarazko ildoko matrikulari egokitu	63. Euskarazko ikastalde teorikoen egitura aztertu, sailen irakaskuntza ahalmenera eta euskarazko ikasleen 2015-16 ikasturteko matrikulara egokitzeko	15-16 IKASTURTEA
		Osasun Psikologia Orokorreko masterra euskaraz gauzatu	64. Osasun Psikologia Orokorreko masterra euskaraz gauzatu	16-17 IKASTURTEA
		Euskararen erabilera hobetu kanpo eta barruko komunikazioan	65. Euskara fakultateko komunikazioa egokiro erabiltzeko praktika onei buruzko gidaliburua osatu	URTERO
	IIP, AZP eta ikasleen konpromiso etiko eta gizarte erantzukizuna	Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuari aktiboki lagundu	66. Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuaren lankidetzan aktiboki jardun	URTERO

	sustatu, edozein jardute eremutan	Psikologia aplikatua zerbitzuari lagundu	67. Psikologia aplikatua zerbitzuari lagundu	16-17 IKASTURTEA
		Genero ikuspegia sartu jarduera akademikoan	68. UPV/EHU n Hizkera ez sexista erabiltzeko gidaliburua zabaldu	URTERO
		Ingurumen kudeaketaren etengabeko hobekuntza sustatu	69. Ingurumen kudeaketaren etengabeko hobekuntza sustatu	16-17 IKASTURTEA
		Garapenerako lankidetzak praktikak mantendu eta areagotu	70. Garapenerako lankidetzak praktikak mantendu eta areagotu	URTERO
		Gizarte erantzukizunaren arloko errektoreordetzak eta bestelako erakundeek sustatutako ekimenetan parte aktiboa hartu	71. UPV/EHU eta gizartearen arteko ehuGune elkarretaratze gunean parte hartu	15-16 IKASTURTEA
			72. ehuGunerekin jardun, Siriako errefuxiatuen laguntzan	15-16 IKASTURTEA

6. AMIA analisia prozesu ekintzekin gurutzatzea

Honako taula honetan, analisia egin ondoren diseinatutako ekintza estrategikoekin lotutako AMIA analisia

AHULEZIAK	EKINTZA ESTRATEGIKOA
Irakaskuntza	
1. Ikasketa planaren antolaketa: lauhilekoen arteko desorekak daude, gaitegiak luzeegiak dira, lan zama handiegia.	43, 46
2. Ikasle gehiegi dago talde bakoitzean.	39, 63
3. Metodologia aktiboak gutxi erabiltzen dira.	31, 32
4. Koordinazioa, orokorrean.	43, 46
5. Ikasketa planaren konplexutasuna, eta horren eragina ordutegien plangintzan	34, 35, 36
6. Ebaluazio sistemak hobetu daitezke.	31, 32, 48
7. Irakasgai gutxi eskaintzen dira ingelesez.	50
Ikerketa	
8. Fakultateko ikertaldeek ikusgarritasun gutxi daukate nazioartean.	7, 18, 25
9. Ez ikasleek, ez IIPek, ez AZPkoek ez dakite zer ikertzen den fakultatean.	7, 18
Antolaketa	
10. Ikasketa planari, jarduera akademikoei, irteera profesionalei buruzko informazioa	5, 11, 12, 17, 18, 45, 61
11. Zaila da web orria eguneratuta izatea.	21, 61
12. Aukera gutxi daude langileen arteko interakziorako.	13
Zerbitzuak eta instalazioak	
13. Ikasgelategian klasea ematea.	33, 36
14. Udan bero handiegia dago eraikinean.	33
15. Bulegoen ezaugarriek lipoatrofia sortzea ekar dezakete.	33
16. Toki gutxiegia dago fakultatean.	33
Irudia eta kanpoko harremanak	

17. Kanpoko komunikaziorako mekanismoak ez dira eraginkorrak.	9, 21, 23, 24 17, 18, 59
18. Harreman gutxi dago bigarren hezkuntzako arduradunekin.	17, 18
19. Praktika zentroen presentzia handitu behar da unibertsitatean.	57
20. Praktika zentroekiko eta oro har lanbidearekiko harremanak hobetu behar dira.	16, 57, 71, 72
21. Fakultatearen lanak zabalkunde gutxi dauka gizartean.	7, 8, 10, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 24, 58, 60
Integrazioa	
22. Ikasleek motibazio eta interes gutxi daukate ikasteko.	54
23. Irakasleek motibazio gutxi daukate irakasteko, ikerketari ematen diote lehentasuna.	54, 56
24. AZPkoek motibazio gutxi daukate erronka berriak beren gain hartzeko.	54, 56
25. Ikasleek, IIPek eta AZPkoek motibazio gutxi daukate fakultatearen kudeaketan parte hartzeko.	54
26. Ikasleen Kontseiluak jardun txikia dauka fakultatean.	54
27. Fakultatearen, titulatuaren eta erretiratutako langileen arteko harreman gutxi dago.	13, 15, 49, 54
INDARRAK	
Irakaskuntza	
28. Ikaslearen gidak	44
29. Hautazko irakasgai asko daude.	
30. Errendimendu, arrakasta eta ebaluazio tasak.	18, 37, 38, 60
31. Titulazio guztiak elebidunak dira fakultatean.	64
32. Ikasle berriak hobeto prestatuta datoz hizkuntza ez-ofizialetan, eta badaude haietan irakasteko akreditatuta dauden irakasleak.	52
33. Docentiaz programan parte hartu dutenen portzentaia.	31
34. Psikologiako Gradua akreditatuta dago.	18, 62
35. Nahitaezko kanpoko praktiketako zentroek oso ondo baloratzen dituzte prestakuntza teorikoa eta gaitasun orokorrak.	18, 19
36. Ikasleek oso balorazio ona egiten dute IIPen irakaslanaz.	18, 19

Ikerketa	
37. Fakultatean ikertalde sendo eta itzal handikoak daude.	7, 18
38. IIPen seiurtekoen kopurua.	7, 18
39. Psikologiako ekoizpen zientifikoa handitu da Euskadin, eta arlo honetako munduko ekoizpenaren batez bestekoaren gainetik dago. Ikerbasqueren 2015eko txostena.	18
Antolaketa	
40. Psikoplan	
41. Web orria.	
42. IKE zerbitzua.	
43. Ikasleen mugikortasuna.	
44. Garapenerako lankidetzan egiten diren praktikak.	70
45. Kanpoko praktikak.	40, 41, 42, 47
46. Prozesuen araberako kudeaketa.	14, 40, 53, 55, 56, 59, 65, 66, 67, 68, 69, 71, 72
47. KBBSren akreditazioa. AUDIT.	40, 55
Zerbitzuak eta instalazioak	
48. Ikasgelak eta, oro har, instalazioak, ondo ekipatuta daude.	
49. Fakultatea ondo hornituta dago baliabide informatikoez.	
Kanpoko irudia	
50. Fakultateak irudi ona dauka (praktiketako begiraleek betetako AMIA inkesta).	
MEHATXUAK	
Lehia	
51. Beste fakultate eta titulazio batzuekin lehiatu beharra (ingurune hurbilean itzal handiko goi mailako beste ikastegi batzuk daude).	
Balizko ikasleak	
52. Ikasleek aukeratu ohi dituzte irteera profesional hobea ikusten dieten ikasketak.	4, 6, 17, 18
Lan ingurunea	
53. Ziurgabetasuna dago, arautegien etengabeko aldaketek graduan eta graduondokoan izan	3

ditzaketen eraginak direla eta.	
54. Fakultatearen ohiko finantzazioa gutxitu egin da, krisia dela eta.	33
55. Zaila da profil profesionalak gizartearen premia berrietara egokitzea.	1, 2, 27
56. Psikologoaren lana ez dago araututa eta intrusismo laborala dago.	11
Irakaskuntza eta ikerketa ingurunea	
57. Irakasleentzat zaila da ezarritako aldaketetara egokitzea (IKTak, aldaketak legerian eta irakaskuntzaren koordinazioan, plataforma digital berriak eta gestio plataforma berriak).	31, 32
58. Ikerketaren arloan, zaila da enpresen, erakundeen eta elkarte profesionalen premietara egokitzea.	26, 30
59. Ikerketa erakunde gehiago daude.	
60. Jakintza arloen arteko desorekak daude diruaren banaketan.	28
61. Krisi ekonomikoa.	
Gizarte ingurunea	
62. Fakultatearen jarduerak oihartzun txikia dute gizartean (fakultatearen ikusgarritasuna txikia da enpresa eta gizarte bilbean, informazio gutxi dagoelako haren jardunaz).	7, 8, 10, 18, 20, 22, 23, 24, 26
AUKERAK	
Balizko ikasleak	
63. Gero eta balizko ikasle gehiagok eskatzen dute informazioa (izena emateko eskarien kopurua hazi egin da, bai lehen aukera gisa eta bai bestelako aukera gisa).	
Lan ingurunea	
64. Psikologo forentsearen lanbidearen aitorpena eremu judizialean.	1, 2
65. Etengabeko prestakuntzaren eta espezializazioaren beharra.	1, 2
66. Enpresa sortzaile gazteentzako laguntza instituzionalak daude.	27
Irakaskuntza eta ikerketa ingurunea	
67. Gizartean oihartzuna izan dezaketen goi mailako ikertaldeak daude.	29
68. Diziiplina arteko jakintza sortzeko ahalmenik badago.	29
69. Ikerketak komunitate zientifikoan daukan inpaktua neurtzeko tresnak.	29

70. Badirudi psikologo forentsearen lanbidea arautu litekeela unibertsitate master baten bidez.	1, 2
Gizarte ingurunea	
71. Beren ikasketen arloan lan egiten duten titulatuak kolektibo bat dago.	10
72. Jardun zientifikoaren zabalkundea egiteko ahalmenik badago.	10, 23, 29
73. Sare sozialen inpaktua.	9, 10, 51

7. Hausnarketa estrategikorako taldea

Dekanotza taldea

Dekanoa

Ana I. Vergara Iraeta

Idazkari akademikoa

Nerea Lertxundi Iribar

Kalitate, Euskara eta Ikasleen arloko dekanordea

Aitziber Pascual Jimeno

Berrikuntza eta irakaskuntza plangintzaren arloko dekanordea

Raquel Malla Mora

Graduondo eta Kanpoko Praktiken arloko dekanordea

Andone Sistiaga Berrondo

Mugikortasun, komunikazio eta gizarte hedakuntzaren arloko dekanordea

César San Juan Guillén

Administratzailea

Loli Alonso Crespo

Ikastegiko teknikaria

Arantza González Larraina

Kalitate Batzordea

Dekanotza taldea

Ana I. Vergara Iraeta

Nerea Lertxundi Iribar

Aitziber Pascual Jimeno

Raquel Malla Mora

Andone Sistiaga Berrondo

César San Juan Guillén

Loli Alonso Crespo

Arantza González Larraina

Sailetako zuzendariak

Joxan Iraola Baquedano

Esther Torres Alvarez

Jesús Guerra Plaza

OPO masterraren koordinatzailea

Maite Garaigordóbil Landazábal

Titulazioaren koordinatzailea

Naiara Arriola Garikano

Kurtsoetako koordinatzaileak

Luis M. Iturbide Luquin

Arantxa Gorostiaga Manterola

Amaia Arregi Agirre

Arrate Agirrezabal Prado

Ikasleak

Iker Oteiza Fornieles

Gabriela René Rivas Doutreleau